

Antzerkia eta umorea etzi Leidorren

Tonino eta Juanjo de la Iglesia ariko dira ▶ 2



Anoetako kiroldegi berria uda hasieran bukatuta egotea espero du Udalak

LAGUNTZA ▶ Foru Aldundiko ordezkariak lanak ikusi dituzte eta horniketarako laguntza eman dezakete ▶ 4



Anoetako kiroldegi berriaren obren egoera atzo bertan; Ikastola ondoan dago kokatuta. IMANOL GARCIA



OLAIA ESKITXABEL

Abesbatzen kontzertu berezia Txintxarri Egunean

ALEGIA ▶ Txintxarri eta Txintxarri Txikirekin batera hainbat musikari ariko da; 'Trapu zarrak'-en moldaketa estreinatuko dute ▶ 5

TOLOSA ▶

Hegoalde denboraldiko lehen puntua eskuratu du

Mostolesekin hiruna berdindu zuten ▶ 3

IBARRA ▶

Ogibide eta lanbide zaharrak nolakoak ziren ikusteko aukera

Erakusketa Benito Izagirre kultur etxean dago urriaren 29 arte ▶ 6



INIGO TERRADILLOS

LEITZALDEA ▶

Bertizera, mendi elkarten egunean

Mendibilek antolatuta du iganderako ▶ 7

SASKIBALOIA ▶

Bikain ekin diote Aralar taldekoek denboraldiari

Aralar saskibaloia taldeak bikain ekin dio denboraldi berriari, jokatu dituzten lau partiduetatik hiru irabazi dituztelako, eta bakarra galdu. Azkena larunbatean irabazi zuen etxean DKV taldearen kontra, 73 eta 43ko emaitzarekin. Lortutako garaipenaren ondorioz, sailkapen orokorreko lehen postuetan dira Aralarrekoak. Partidu txarra eginda irabazi zuten larunbateko neurketa. Mikel Ibañe, Iñaki Garcia, Iker Otaño, Kaiet Bidaurre, Haritz Arana, Enekoitz Ezkerra, Ander Zulaika eta Juan Mari Lasa aritu ziren tolosarren alde lanean. Datorren norgehiagoka Beasainen jokatu dute, CAF taldearen kontra.

MENDIA ▶

Ganuzatik Kontrastarako mendi irteera

Alpino Uzturre elkarteak Ganuzatik Kontrastarako (Ara) mendi irteera antolatu du iganderako, hilak 24. Sei bat orduko ibilaldia eginez, Lokizeko Santiago (1.114 m.), Larrañeta (1.115m.) eta Otzamendi (1.255m.) gainak igotzeko dute mendizaleek, eta hara joateko Pablo Gorosabeletik irteera dira, betiko moduan, 07:00etan. Mendi irteera joan nahi izatera, Alpino Uzturrek Gudari kalean duen egoitzara joan beharko dute herritarrek ahalik eta azkarren izena emateko edo informazioa jasotzeko. Bestela, 943 65 27 89 telefono zenbakira dei daiteke.

KULTURA ▶

'Adictos al regimen' antzezlana eskainiko dute etzi Leidorren

T5eko 'Caiga Quien Caiga' programa desagertuko aurkezle Tonino eta Juanjo de la Iglesiak jardungo dute taula gainean



Adictos al regimen antzezlanean protagonistak, antzerki emanaldia iragartzen duen kartelean. HITZA

IRATXE ETXEBESTE

Radio 3ko *Caravana de hormigas* programako zuzendari eta Localia TVeko *Hoy no hay siesta* programaren gidatzaile Jesus Beltrane landu eta idatzitako testuetan oinarritutakoak. El-karrizketak eta astakeriak. El-karrizketen eta astakerien segida. T5eko *CQC. Caiga Quien Caiga* programa desagertuko aurkezle Tonino eta Juanjo de la Iglesiak antzeztuta. Horixe da etzi gauean Leidorren eskainiko duten *Adictos al regimen* antzezlaren funtsa. Horixe, eta askoz ere gehiago.

Eskola baten atarian eztan- da egiten duen *best-seller* tranpa arrisksua, Guantana- motik (Kuba) datorren Tonino- ren tortura saioa, berpiztu egi- ten den eta ikus-entzuleen bu- ruen gainetik hegan egiten duen gomazko oilaskoa, beldur- ra eragiten duten telepatia eta telekinesia erakustaldiak, dra- ma antzezlari handiei humo- rezko zertzeladak eranstean zaizkien *El Club de la Tragedia*-ko bakarrizketak, «*meeting*» espirituala, *consolatrix* *aflictorum*-a, testigantza izuga- rriak eta mirarizko osatzeak», bezeroen arretarako telefono zerbitzuen egia beldurgarria... Hori guztia ere bada *Adictos al regimen*.

2002ko abenduaren azken astean aurkeztu zuten antzezlana lehendabizikoz, bertako antzezlari telebistako programa entzutetsu batetik «halabeharrez, leunki lekualdatu» baino egun gutxi batzuk lehenago. «Horrexegatik maite dugu proiektu hau hainbeste ziur- ririk», diote antzezlariak. Izan ere, «bizirauten eta eguneroko argiaren faktura ordaintzen lagundu zigun hasiera hartan,

telebista plato batera baten sili- konazko ezpainak, bestearen adarren tamaina edota hurrengo- goaren ezkon-bizitza atseka- betua aztertzea joan behar izan gabe».

Antzezlana estreinatu zute- netik ia bi urte pasatu dira, eta oraindik ere emanaldia eskain- tzen duten bakoitzean aretoa jendez betetzen denez, Toni- nok eta Juanjo de la Iglesiak antzerki saioekin jarraitzea erabaki dute, datorren ikuski- zuna prestatzen duten bitarte- an. Horiek biak izango dira etzi Leidorren taula gainean ager- tuko diren bakarrak, eta itzale- tik, lantalde txiki izango dute lagun: Toninok eta Juanjo de la Iglesiak errezitatuko dituzten testu gehienak Jesus Beltrane- nak dira; argiztapena, soina, eszenografia... Juan Moyak gidatuko du eta produktzioa eta *management*-a Isac SA-ren esku egongo da.

22:30ean hasiko da antzerki emanaldia Leidor aretoan, eta sarrerak salgai dira honezkeroko Kultur Etxean. Gazte txartelare- kin ordaintzeko aukera da al- dez aurretik; lehiatilan ez dute sarrerak beharpenik izango.

FUTBOLA ▶

Jardunaldi eskasa Tolosa CFko beheko taldeentzat

Garaipenak adina porrot izan dituzte urdinek, eta beste hiru berdindu dituzte

I. ETXEBESTE

Tolosa CFko behe mailako taldeentzat eskasa izan da azken jardunaldia. Garaipenak halako porrotak izan dituzte, eta beste hiru berdinketa. Euskal Ligan ari diren jubenilek hutsna berdindu zuten Elgoibarren, gogor borrokatu behar izan ziren partiduan. Asteburuan Berazubin jardungo dute tolosarrek, eta irabazten ahalegin- duko dira Eibarren aurka. Lurreldeko lehen mailako- ek Ostadarrera egin zuten bi- daia, eta 6-0 galdu zuten.

Jubenilen bigarren taldeak Beasainen zuen neurketa, eta galtzen hasi zen lehen mi- nutuan, baina laster eman zioten buelta markagailuari Alonsoren eta Barriolaren golei esker. 39. minutuan argia joan zen, ordea, eta epai- leak bertan behera utzi be- har izan zuen norgehiagoka. Ados jarri beharko dute bi taldeek orain, partidutik ger- ratzen den denbora jokatzeko. Euskal Ligako kadeteek ere ez zuten zorzte handirik izan, San Viator taldeak irabazi egin zuelako gol baka- rreko aldearekin.

Kadeteen bigarren taldeak egin du jardunaldi onena. In- ternazional 9-0 gailendu zitzaion, Iñakiren (2), Ifigoren (2), Axiarren, Mikelen, Larrauriren, Ciprianoren eta Aritzen golek. Ohorezko Li- gako infantilek bina berdin- du zuten Beasainen kontra; Jon Anderrek eta Artetxek sartu zituzten urdinen alde- ko golak. Infantil Txiki talde- koek 1-5 irabazi zuten Are- txabaletan, Jose Miguelen (3) eta Daviden (2) golek.

Neskek ere berdindu egin zuten bana Usurbilen, Aini- tzeren golari esker, nahiz eta zelaia egoera oso kaskarre- an zegoen.

 FORMAKUNTZA IKASTAROK (Langileentzat) 2004/05 KUALIFIKAZIO PROFESIOALEN SISTEMA - KAT/LOGO MODULARRA			
IKASTAROA (KREDITO FORMATIBOA)	ORDUAK	HASIERA	ORDUTEGIA
- Kalkulu-orrria (Excel)	30	04-10-25	18-21
- Elektrodo estali bidezko angeluko soldadura	80	04-10-25	18-21
- Sare lokal baten administratzea (Windows 2000 Server)	70	04-10-25	18-21
- Fresadora konbentzionaleko mekanizazioa	80	04-10-25	18-21
- CAD 2D (AUTOCAD 2004) (Hastapena)	40	04-10-25	18-21
- Finantza kudeaketa	30	04-11-03	18-21
- Adierazpen-sistema arautuak (Marrazketa teknikoak)	40	04-11-03	18-21
- Automatismo elektroteknikoak	40	04-11-03	18-21

Matrikula eta informazioa: Tel: 943 65 11 47 • Santa Luzia, 17 • 20400 TOLOSA
E-mail: idazkaritza@tolosaldea.com • Web: www.tolosaldea.com

HITZA, egunero zure etxean jaso nahi baduzu deitu

943 30 43 46

Edozein kexa, iradokizun edo kezka argitzeko ere bai

ARETO FUTBOLA ▶

Denboraldiko lehen puntua poltsikora

Urduri aritu ziren Hegoalde eta Mostoles, eta hiruna berdindu zuten

LEIRE MONTES

Urduritasuna izan zen nagusi Hegoalderen eta Mostolesen arteko partidari, Berazubini, larunbatean. Bi taldeek pata pata hasi dute denboraldia, eta beharrezko lasaitasuna eta indarra emango zizkien hiru puntuak poltsikoratu nahi zituzten biek ala biek laugarren jardunaldi honetan. Gauzak ondo egin nahi horrek eta presioak ez zien, baina, lasai jokatzeko utzi, eta puntuak banatu egin behar izan zituzten azkenean. Denboraldiko lehen puntua da Tolosakoentzat.

Egonezinak «akats ugari» ekarri zituela diote taldeko ordezkariak: «Ez guk ezta haiek ere ez genuen joko ikusgarriarik egin. Urduriegi aritu ginen, eta horregatik akats asko ikusi ziren kantxan. Ondo kokaturik izan arren, ez genuen jokaldiak amaitzen asmatu, eta aukera dezente galdu genituen».

Taldekidetaren esanetan, «jokalariek ez ziren izan akatsak egin zituzten bakarrak. Epailak ere nahastu egin ziren behin baino gehiagotan. Erabaki horiek, dena den, ez zuten eraginik izan emaitzan».

Lehen zatia «lasaia eta emoziorik gabekoa» izan zen, baina bigarrenaren «joko biziagoa, dinamikoagoa» ikusi ahal izan zuten zaleek Berazubini. Sartu ziren sei golak dira erasoko jokoen erakusle: talde batek gola sartu orduko beste gol batekin erantzuten zion besteak. Azkenean, hirunako berdinketa puntu bana.



Hegoaldeko jokalariek, Berazubini, zaleak agurtzen. IMANOL GARCIA

HEGOALDE ▶ 3

MOSTOLES ▶ 3

Hegoalde. Xonia Tome, Itziar Aldezabal, Isa Barrio, Nerea Salazar eta Maider Lopez —hasierako bostekoa—; Miriam Arana, Edurne Agirretxe, Amaia Azpilikueta, Esther Videra, Myriam Prados eta Gemma Zelaia.

Entrenatzaileak: Virginia Amilibia eta Maite Argote.

Tecnocasa Mostoles. Isabel Izquierdo, Laura Alvarez, Patricia Damas, Patricia Manzano eta Carmen Diaz —hasierako bostekoa—, Ana Jimenez, Ana Peña, Laura Jimenez, Lourdes Quiros, Margarita Diez, Rebeca Sanz eta Maria Martin.

Entrenatzailea: Begoña Exposito.

Golak. 0-1: Patricia Manzanok (26m.); 1-1: Maider Lopezek (35m.); 2-1: Itziar Aldezabalek (38m.); 2-2: Carmen Diazek (38m.); 2-3: Carmen Diazek; 3-3: Isa Barriok (40m.).

Epailak. Luis Bergado, Asier Yanguas eta Daniel Dos. **Txapelketa.** Areto futboleko Emakumezkoen Ohorezko Maila; laugarren jardunaldia.

Datorren asteburuan ere madrildarrak izango dituzte aurkari Hegoaldeko jokalariek. Soto del Real taldearen kontra jokatuko dute, Madril.

INAUTERIAK ▶

Karroza eta konpartsetako kideen bilera, gaur, Kultur Etxean

Inauterietan ateratzen diren karrozetako eta konpartsetako kideak «kexu» agertu dira «beste urte batez» Udalak ez dielako beren plataformak gordetzeko «leku aproposik» eskaintzen. Era berean, datorren urteko Inauterietarako Udalak martxan jarri nahi dituen zenbait neurriren aurrean «harriturik» azaldu dira. Hori guztia mahai gainean jartzeko, eztabaidatzeko eta guztien iritzia jasotzeko bilerara deitu dute gaurko. 20:00etan da hitzordua, Kultur Etxean. «Karrozetako eta konpartsetako kide guztiak eta herritarrei orohar bilera zabalik» dela azpimarratu dute antolatzaileek.



Karrozak eta konpartsak prestatzen orduak eta orduak pasatzen dituzte Inauterizale askok. JOXEMI SAIZAR

UDALA ▶

Erretengibel-ek egoitza aldatu berri du

Erretengibelek, Tolosako Alde Zaharra Birgaitzeko Hirigintza Sozietateak, egoitza aldatu berri du. Plaza Zarreko 10. zenbakiko baxuan jarri ditu buelgoak, eta hemendik aurrera bertan jasoko ditu herritarren iritzia, zalantzak eta kezak. Telefonoa eta fax zenbakia eta helbide elektronikoa ere aldatu ditu; hauek dira berriak: 943 67 08 92 telefono zenbakia, 943 67 06 23 fax zenbakia, eta erreten@tolosakoudala.net posta elektronikoa.

HITZALDIA ▶

Karlos Garaikoetxea bihar Bonberenean

Kontzertuz gain, bestelako ekintzak ere antolatu dituzte Bonberenean denboraldi honetarako. Bihar, hain zuzen ere, hitzaldia izango da etxean: Eusko Alkartasunako Karlos Garaikoetxeak eta Martin Aranburuk egungo egoera politikoa izango dute hizpide. 20:00etan hasiko da saioa.

AHT ▶

Bilera deia, gaztetxe eta gazte asanbladei

Tolosaldeko AHT Gelditu! Elkarlanak datozen egunotan zenbait ekimen antolatzeko buru-belarri ari da lanean. Ekimen horien berri emateko, bilerara deitu ditu gaur gaztetxetako eta gazte asanbladetako kideak. 19:30ean da hitzordua, Kultur Etxean. Bestalde, larunbat honetan batzarrera deitu dute Elkarlanekoek, 10:00etan, Kultur Etxean. Batzar irekia da, eta edonork har dezake parte.

AISIALDIA ▶

Begirale ikastaroan izen-ematea

Laskorain ikastolak eta Kazkabarra aisialdi taldeak begirale ikastaroa antolatu dute Urtxintxa eskolarekin batera. Eskolak Tolosan eskainiko dituzte: ostiralean, 17:00etatik 21:00etara; eta larunbatetan, 09:00etatik 13:00etara. Guztira, 200 orduko ikastaroa da, eta urtebetean lor daiteke titulua. Izen-emate epea aste bukaera arte luzatu da, baina interesa duenak lehenbailehen izena ematea eskatu dute antolatzaileek. Horretarako, 677 48 99 71 telefono zenbakira deitu behar da.

HEZKUNTZA ▶

Ikasleen gurasoek bilera Hirukiden

Ikasturte hasierako bilerekin jarraitzen dute Hirukide ikastetxean. Bihar, hain zuzen ere, DBHko 4. mailako ikasleen gurasoek deitu dituzte ikastetxeko arduradunek. 18:30ean hasiko da bilera, Hirukide Eskolapioetan.

KEY-LAN
Sarrailgintza

Nafarroa etorb, 13 behea - TOLOSA
Mug.: 670 41 79 22
Tel./Faxa: 943 65 03 13

MENDI-ALDE
Eguneroko menuak eta karta **Jatetxea**
Bataioak, Jaunartzeak,...

San Esteban auzoa, 39 • © 943 65 17 99 • 20400 TOLOSA

ANOETA ▶ AZPIEGITURAK

Kiroldegi berriaren eraikina datorren uda hasierarako bukatzea espero du Udalak

Foru Aldunditik bisita egin dute eraikuntza lanen berri izateko; eraikinerako dirurik jarriko ez badu ere, ekipamenduen horniketari laguntza eman dezake



Argazkian ikusi daiteke eraikuntza lanen egoera, kirol anitzetako pista lehen planoan eta harmailen egitura atzean. IMANOL GARCIA

IMANOL GARCIA

Kiroldegi berriaren eraikuntza lanek aurrera darraite. Kiroldegi berria Ergoien auzoan eraikitzen ari dira. Ikastolaren ondoan. Guztira 3.200 metro karratu beteko ditu. Eraikineraren obrak urtarrilean hasi ziren eta datorren udaren hasierarako amaitzea espero du Udalak. Atzerapena izan zen eraikuntzako grebak lanak geldiarazi zituelako. Eraikina bukatu ondoren, ekipamenduz hornitzeko lanak hasiko dira.

Orain gutxi Foru Aldunditik bisita izan zuten eraikineraren proiektua ezagutu eta obren egoeraren berri izateko. Hain justu, Iñaki Ugarteburu Foru Aldundiko Kirol Saileko zuzendaria eta berarekin etorritako teknikari bat egon ziren elkarburu Anoetako alkatearekin eta eraikineraren arkitektoarekin, proiektuaren nondik norakoa jakiteko.

Eraikineraren eraikuntza lanetarako ez du jarriko dirurik Foru Aldundiak, baina aukera dago kiroldegiak izango dituen

ekipamendu beharretara begira laguntzarik emateko. Fidel Azpiroz alkateak HITZARI adierazi dioenez, Foru Aldundikoei «proiektu polita iruditu zitzaizkien; zenbait ohartarazpen egin zituzten, baina kiroldegiaren oinarriko baldintzak betetzen dituela esan zigun». Bisita «positiboa» izan zela gaineratu zuen Azpirozek.

Proiektua bi irizpidetan oinarritu da. Alde batetik, jolasarako ingurua konfiguratzeko eskuhartzea egitea lurraldean, eta bestetik, funtzionaltasuna

izatea erabilpen gune ezberdinetako diseinuetan. Irizpide hauetaz gain, eguzki indarraren erabilpena aurreikusitako da. Energia hau lortzeko eguzki plakak jarriko dira eta kiroldegi ura berotzeko erabiliko da.

Bi solairukoa

Instalazioei dagokionez, oinarriko irizpide jakin batzuk jarraitu ziren, hala nola, kirol anitzetarako pista, erabilpen anitzetako aretoak, giharketa gela

INSTALAZIOAK ▶

BEHEKO SOLAIRUA

Harrera.
Kirol anitzetarako pista.
Taberna.
Erabilpen anitzetako areto handia eta txikia.
Giharketa gela.
Erabiltzaileentzako aldagelak.
Arbitroentzako aldagelak.
Biltetgia.

LEHEN SOLAIRUA

Egongela.
Harmailak, 205 pertsonentzako.
Bulegoak.
Aldagelak.
Gorputz tratamendurako espazioa.

eta gorputz tratamendurako espazioa. Eta noski, instalazio horiek behar dituzten zerbitzuak: aldagelak, komunak, biltetgiak, leihatilak... Bestalde, taberna ere izango du kiroldegiak, beheko solairuan.

Bi solairu izango ditu eraikin berriak. Beheko solairuan egongo dira instalazio nagusiak: kirol anitzetarako pista, erabilpen anitzetako aretoak —handia eta txikia— eta giharketa gela. Lehen solairuan, berriaz, gorputz tratamendurako espazioa izango du eta 205 pertsonarentzako harmailak. Behe solairuan azalera erabilgarria 1.973,42 metro karratu izango ditu eta lehen solairukoak 413,47 metro karratu.

Bi milioi eurotik gora

Kiroldegi berriaren eraikinak 2.295.683 euroko kostua izango du, ekipamenduen kostua kontuan hartu gabe. Inbertsioei aurre egiteko, batez ere kiroldegi berriarena, orain gutxi Udalak ezohiko batzar batean ia hiru milioi euroko mailegua eskatu zion Kutxari. Mailegu horrek hogeituro urteko amortizazio epea izango du, bi urteko gabealdia barne, eta baldintzak berriz, Mibor gehi 0,2ko interesak izango dira.

www.tolosaldeko hitza.info

▶ sar zaitez eskualdeko web atarira

▶ inkestak, eztabaidak, eguneko albisteak, argazki bildumak, zerbitzuak, zorion agurrak...

zorion agurrak bertan:



ALEGIA ▶

'Madame Sata'
filma ikusgai
Gaztetxean

Brasilgo eta Frantziako ko-produkzioa den *Madame Sata* filma izango da ikasturte honetako Gaztetxeko zine klubean eskainiko duten lehenengo filma. *Madame Sata* gisara ezagutzen zen Joao Francisco dos Santos (1900-1976), bizitzaren inguruan sortutako mitoetan eta kondairetan oinarrituta dago filma. Sari ugari eskuratu ditu Karim Aïnouz-ek zuzendutako filma horrek. 105 minutu irauten ditu; filma, ohi bezala, 21:30ean hasiko da Gaztetxean.

IKAZTEGIETA ▶

Gaurko hitzaldia
astelehenera
atzeratu dute

Zahartzaroaren berezko aldateten inguruko hitzaldia gaur egiteko bazen ere, astelehenera, urriaren 25era, atzeratu dute, aurretik gaurko jubilatuen irteera antolatuta zegoelako. Hitzaldia, Kiroldegian izango da, 16:30ean.

BIDEGOIAN ▶

'Inaxitoren
ametsak'
emanaldia, etzi

Inaxitoren ametsak bertso emanaldia izango da ikusgai etzi herriko plazan. Trikuharri taldeak eskainitako saioa, haurrentzako ikuskizuna da; sei eta hamabi urte bitarteko gaztetxoek dago zuzenduta. Ordu bete inguru iraungo du ipuin, txiste eta bertsoak tartekatzen diren emanaldi horrek; 14:30ean hasiko da.

ALEGIA ▶ MUSIKA

Emanaldi berezia antolatu
dute Txintxarri Egunerako

'Trapu Zarrak' abestiaren partitura estreinatuko dute igandeko saioan



Ezkerretik eskubira, Garbiñe Orbegozo Txintxarri-ko zuzendaria, Angel Unzu musikaria eta Idoia Iraola Txintxarri Txiki-ko zuzendaria, igandeko emanaldia iragartzen duen kartela eskuan dutela. O.ESKIXABEL

OLAIA ESKIXABEL

Musika emanaldi berezia presatatu dute Txintxarri abesbatzek igandean, urriaren 24ean, izango den Txintxarri Egunerako.

Abesbatzetako kideak ondo lagunduta egongo dira emanaldian; hainbat musikari izango dituzte ondoan igandeko kontzertuan. Mikel Roperok klarinetea joko du, Garbiñe Sa-

gastibeltzak baxua, Mariaje Rekondok pianoa eta Julen Goikoetxeak, perkusioa.

Txintxarri Egunean entzungai izango diren abesti guztien moldaketa instrumentala Angel Unzu kitarra-jole eta musikari ezagunak egin ditu. Ahots bakarrera zeuden abestien moldaketa ere egin du Unzu; lau ahotsetara jarri ditu.

Igandeko emanaldia, San Juan Bataiatzailearen elizan

EGITARAUA ▶ TXINTXARRI EGUNA

TXINTXARRI TXIKI

'Ur azpian'. Alen Menken (Disney).
'Le cançó de les bananes'. Cristian Bruhn. Josep Vigo (moldaketak).
'Munduko bideak'. Urrexitdorak. Angel Unzu (moldaketak).

TXINTXARRI ABESBATZA

'Nerea izango zen'. J.A. Artze/J. Busto.
'Primaderako liliak'. Benito

Lerxundi. Angel Unzu (moldaketak).
'Amen'. Gospel. N. Luboff (moldaketak).
'Nafarroa arragoa'. X. Lete. X. Sarasola (moldaketak).
'Belaio'. Brasigo abesti herrikoa. Hector Villa-Lobos.
'Trapu zarrak'. J.M. Iparragirre. Angel Unzu (moldaketak).

BI ABESBATZEK BATERA

'Eperra'. Herrikoa. Angel Unzu (moldaketak).

izango da 12:00etatik aurrera. Txintxarri Txiki abesbatzako kideak izango dira abesten lehenak; Idoia Iraola gazte tolosarraren gidaritzapean hiru abesti eskainiko dituzte.

Jarraian, Garbiñe Orbegozo alegiarrak zuzendutako Txintxarri abesbatzaren txanda izango da. Sei abesti eskainiko dituzte. Amaitzeko bi abesbatzek batera eskainiko dute *Eperra* abesti herrikoa. Abesti ezagun hori «herritarrekin batera abestuko da», azaldu dute abesbatzako kideak.

Iparragirreraren abestia

Euskal abesti ezagun ugari eskainiko dituzte Txintxarri Egunean; Benito Lertxundiren *Primaderako liliak* edota Xabier Leteren *Nafarroa arragoa* aurkitzen dira horien artean.

Hala ere, egun horretako «abestirik preziatuena» Joxe Mari Iparragirrek 1856. urte in-

guruan konposatutako *Trapu zarrak* abestia dela zehaztu dute abesbatzetako kideek. Angel Unzu musikari ezagunak egin du abesti horren moldaketa. Partitura, igandeko saioan estreinatuko dute.

Emanaldi berezia izango da, beraz, igandean, urriaren 24ean, Alegiako abesbatzek eskainiko dutena: «Alegiarrei zein inguruko herritarrei musika emanaldira joateko gonbitea luzatu nahi diegu», zehaztu dute, amaitzeko, Txintxarri abesbatzako kideek.

Emanaldiaren ondoren, Tolosaldea jatetxean (gasolindegiko jatetxea) bazkaria izango da; 14:30ak aldera bilduko dira bertan.

Jatetxera joateko autorik ez dutenentzat auto zerbitzua jarriko da, bestalde; bazkaldu ondoren, herrira bueltatzeko ere izango da zerbitzu hori. Interesatuztat 14:00etan herriko plazan jarri dute hitzordua.

iragarki laburrak ▶

BASABI
Inmobiliaria

Pablo Gorosabel, 48
1. planta - 7. bulegoa
20400 TOLOSA
Telf. eta Faxa: 943 65 55 87
mug.: 669 368 994

Aizarnazabal. Txakolin saila duen 50.000 m²-ko lursaila salgai. Nekazal ustiapenaren bitartez bi familientzako etxebizitza egiteko aukera.

Albiztur. Etxe rustikoa salgai; hiru solairukoa. Solairu bakoitzak 120 m² ditu, eta 200 m²ko lorategiarekin. Bizitzera sartzeko prest.

Anoeta. Etxe abikia salgai; garajea aukeran.

Belauntza. 1.060 m²-ko pabilioia salgai; erabat argitsua eta garabiarekin.

Belauntza. 225 m²-ko pabilioia alokairuan; erabat argitsua.

Donostia. 104 m²-ko etxebizitza salgai Colon pasealekuan. Ikuspegi zoragarriak ditu eta erabat berritua dago.

Donostia. Rodil zeharkalean, 45 m²-ko apartamentua salgai; erabat berritua eta altzariz hornitua. Kanpoaldera begira.

Donostia. 94 m²-ko bulegoa salgai, Hotel Costa Vasca inguruan. Banatzeko aukera.

Gaintza (Nafarroa). Berrikuntza behar duen hiru solairuko baserria salgai.

Ibarra. 95 m²-ko etxebizitza, oso eguzkitsua, kanpoaldera begira.

Ibarra. Guridi Maisua kalean 85 m²-ko etxebizitza, eguzkitsua, kanpoaldera begira eta hornitua.

Ibarra. 75 m²-ko etxebizitza. Berritzeko. Lehenengo pisua; kanpoaldera.

Ibarra. 75 m²-ko pabilioia eta nekazaritzarako egokia den 2.500 m²-ko lursaila salgai.

Lasarte. Egoera bikainean dagoen, 62 m²-ko etxebizitza, kanpoaldera begira.

Legorreta. 1.000 m²-ko pabilioia salgai, 5.000 m² dituen lursailaz hornitua, erosteko edo alokatzeko aukera.

Lizartza. 14.000 m²-ko pabilioia, eraikuntza berrikoa.

Segura. 90 m²-ko bi etxebizitza salgai; erabat berritua.

Tolosa. San Esteban auzoan, 76 m²-ko etxebizitza dago salgai; hiru fatxada ditu, eta oso eguzkitsua da.

Tolosa. Nafarroa etorbidean 140 m²-ko etxebizitza dago salgai, garajea erosteko aukerarekin.

Tolosa. Agintari kalean 75 m²-ko etxebizitza dago salgai; eraiki berria; igogailuarekin.

Tolosa. 50 m²-ko berritutako atikoa salgai; altzari batzuek baditu.

IBARRA ▶ ERAKUSKETA



Erakusketa. Benito Izagirre kultur etxean dago Kutxa Gizarte Ekintzak babestutako argazki erakusketa. 40 argazki ikus daitezke guztira. XX. mendeko lehen erdialdekoak dira denak. **INIGO TERRADILLOS**



Ezti-saltzailea eta txongil-saltzailea. Alcarriako ezti-saltzailea da ezkerrean agertzen dena eta 1945. urteko argazkia da. Eskuinean, berriz, txongil-saltzailea, Donostiako Urbieta kalean dago eta 1950. hamarkadako argazkia da. **INIGO TERRADILLOS**



Latsariak. 1900. urtekoa da argazki hau. Garai hartako latsari edo arropa garbitzaile bat ikusi daiteke bertan. Kasu honetan, emakume hau Urumea ibaiari ari da garbiketa lanak egiten. **INIGO TERRADILLOS**



Bainuzaina. 1919. urterarte egiten dugu atzera argazki honekin. Donostiako Kontxako hondartzan atera zuten. Irudian hondartzako bainuzaina ageri da, itsasoa bainu bat ematek uretik aterazen ari zen emakume bati lehertzeko toalla ematen. **INIGO TERRADILLOS**

Ogibide eta lanbide zaharrak gogoratuz

‘Ogibideak eta lanbideak’ erakusketak aitona-amonen lanbideak eta lantegiak nolakoak ziren ikusteko balioko du

INIGO TERRADILLOS

Pasa den ostiralean hasi eta urriaren 29a bitarte argazkien erakusketa berezi batez gozatzeko aukera izango da Ibarra-ko Benito Izagirre kultur etxean.

Erakusketa honetan gure guraso eta aitona-amonak XX. mendearen lehen 50 urteetan landu zituzten ogibide eta lanbideen argazkien bilduma txiki

bat eskaintzen da. Horrela, Donostiako Kontxa hondartzan lan egiten zuten bainuzainak, etxeetako gauzainak, garaiko udaltzainak, postariak edo hondar biltzaileak ikus daitezke, lanbideen artean, besteak beste.

Erakusketan ikus daitezkeen lanbide batzuk indarrean daude gaur egun, nahiz eta aldaketa teknologikoen lan egiteko moduak dezente aldatu dituz-

ten. Honen adibide izan daitezkeen, suhiltzaileena edo sendagileen lanbidea, bi hauetan asko aldatu baita, lan egiteko modua eta lanerako erabili beharreko erramintak edo tresnak.

Beste batzuk, hirietako ikuspegiaren zati ziren horiek, hala nola, eztigileak, txongil-egileak eta zapata garbitzaileak, desagertu egin dira, eta baliteke, gazteenek jakinminaz aztertea lanbide horien irudiak.

Bestalde, lanbide batzuetan gizonzkoek bakarrik lan egiten zuten, txoferrak eta maletagarriatzaileak adibidez, eta beste lanbide batzuetan, berriz, emakumezkoak baino ez ziren ikusten; jostunen eta arropa-garbitzaileen kasuak dira hauen adibide.

Baziren lanbide batzuk, itsasoan lan egiten zutenena adibidez, bien artean banatzen zena egin beharreko lana.

Garaia, lanbide eta ohitura desberdin haiek hobeto ulertzeko, ordea, Kultur Etxera gerturatu besterik ez da egin behar. Argazki bakoitzaren aldarmenean, urtea eta dagokion azalpena agertzen da, hainbat harridura sortaraziko duelarik.

Argazki erakusketa 10:00etatik 13:00etara eta 15:30etik 21:00etara ikusi ahalko da urriaren 29a bitarte.

BERASTEGI ▶

Guraso Eskola antolatzeko asmoa dago

Berastegiko Guraso Elkarteak Guraso Eskola antolatu nahi du. Saioak astelehenean izango dira eta ordutegiari dagokionez bi aukera daude: 14:00etatik 16:30era edo 21:00etatik 22:30era. Izena eman nahi duenak bere seme edo alabaren tutoreari eman beharko dio urriaren 26a baino lehen. Bertan, bere datuekin batera zein ordutegi datorkion ondo zehaztu beharko du.

BERASTEGI ▶

Sarekide erakusketa gaurtik eskolan

Gaur hasi eta urriaren 28a bitarte Sarekide erakusketa izango da ikusgai Berastegiko Muñagorri eskolan. Erakusketa honen helburua, gaur egungo eta etorkizuneko informazio eta komunikazioaren informazioa eman eta proiektu berriak bultzatzea izango da, besteak beste. Horretarako jardura desberdinak prestatu dira. Gaur, adibidez, 18:00etan hitzaldia izango da Jon Ander Jauregiren eskutik eta MAC ordenagailuen erabilgarritasunaren inguruan mintzatuko da.

IBARRALDEA ▶

Haur eta gazteen astebururako irteera

Uli mankomunitateak, asteburu honetarako, Zarautzera irteera antolatzen du eta Leaburu-Txarama, Oresa eta Belauntzako haur eta gazteak joan ahal dira. Irteerara begiraleekin joango dira Zarautzera, eta hainbat ekitaldi izango dituzte.

BELAUNTZA ▶

Behi bis taldearen ipuin antzeztuak bihar

Bertsotan idatzitako ipuinak bilduko dira bihar ikuskizun honetan, eta hauke musikaz, panpinez eta dantzaz lagundurik kontatuko dira, antzerki musikala sortuz. Behi bis taldeak eskainiko du ikuskizuna bihar 18:00etan belauntzako Kultur Etxean.

KIROLA ▶

Mendi elkarteen eguna dela eta, Bertiz izanen da abiapuntu

Mendibil elkarteak deialdiarekin bat egin eta herrialdeko gainerakoekin, egun pasa prestatu du igande honetarako

JAIONE ASTIBIA

Igande honetarako, urriak 24, mendi irteerarako gonbidapena egin du Mendibil mendi taldeak, baina ez da ohiko irteera asteburu honetakoa. Izan ere, Nafarroako Mendi Federazioak, elkarteen eguna antolatu du eta deialdiarekin bat eginenez, bertara joateko bidea erraztu du.

Elkarteen eguna delako hau, beraz, Oronoz-Mugairi eta Elizondo artean eginen dute, bi herriak elkartuz. Abiapuntu, hain zuen ere, Bertizko babes-turiko gunea izanen dute eta bertako izadiaren aberastasunarekin errepentuz, eta udazken kolore hori-gorritzaren nahastetaz gozatuz, Elizondorekin uzartzerara joanen dira ibiltariak.

Edozein moduz, hiru ibilbide desberdin prestatu dituzte, norberak bere gaitasunen edota gogoaren arabera, aukera egin dezan, hirurek ere abiapuntu eta helmuga berberak dituztelarik. Jakitera eman dutenez, autobusak ibilbidearen amaieran, hantxe egonen



Horrelako irudiak ere laister ikusiko dira. J. ASTIBIA

omen dira zain. Horrela, lehendabiziko ibilbidean, Legate mendia igotzeko aukera izanen dute mendizaleek. Bost orduko iraupena duen ibilaldi honetan 800 metroko igoera dago, 870

metro garaiera duen mendia izanik ere.

Bigarren ibilbidea, aurreneko hori bezalatsukoa omen da, baina motzagoa, lau ordutan egin daitekeena, eta altuera

desberdintasuna ere 500 bat metrokoa izanik. Itxuraz, bestea baino errazaxago egin omen daitekeena, beti ere antolatzailerek adierazi dutenez.

Eta hirugarren, Tren Txikitoko ibilbidea izanen dute aurretik, hau bi ordu eta erdiz egiteko modukoa eta zelai-zelai, ia batere aldarrik gabekoa: 1918tik 1956ra bitartean Irun eta Elizondo lotzen zituen trenaren, Bidasoako trenaren, bide bera eginez, Bidasoa ibaiaren ertzetik ibiliz joateko aukera.

Edozein dela ere aukeratutako ibilbidea, igandean bertan eman behar da horren berri.

Eta ibilbide hauetako bat egin ondoren, bazkaria izanen dute zain Elizondoren parte-hartzaile guztiek, 14:30ean, norberak eramandakoa alegia. Hori bai, tresneria antolakuntzak prestatuko omen du eta baita kafea eta likoreak ere. Eguraldi ona eginen balu, Merkatuko Plazan eginen dute bazkari hau. Bestela, pilota lekura joanen omen dira federaziotik argitu dutenez.

Beraz, igande honetan ere bada, aitzakia tikiarekin, egun eder askoa botatzeko aukera eta horretaz baliatzea besterik ez dago.

Hala, egun pasarako prest egonez gero, Leitzako Maimur edo Astiz liburutendetan eman behar da izena, gaur, urriak 20, iluntzea baino lehen. Lehenbailehen ibiltzea komeni da, beraz.

Igandean goizean goiz ateraiko da autobusa Leitzatik Oronoz Mugairirantz, 7:45ean. Irteeran parte hartuko dutenek, plazan dute hitzordua egina.

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoetaldea. Medikua: 65 23 39
Asteasu. Medikua: 69 24 23
Berastegi-Elduain. 68 33 61
Bidegoian. Medikua: 68 11 34
Ibarraldea. Osasun etx.: 672411
Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29
Irura. Osasun zentroa: 69 07 20
Leitza. Osasun z.: 948 510800
Lizartza. Medikua: 68 20 77
Tolosa.
 ▶ Anbulatorioa, larriald.:461111
 ▶ San Esteban: 00 68 00
 ▶ Gernikako arbola: 00 69 00
 ▶ Asunzion klinika 67 57 99 - 67 53 90 (larrialdiak)
 ▶ Udaltzaingoa: 67 58 58
 ▶ DYA: 67 25 36
 ▶ Gurutze Gorria: 67 48 88
 ▶ Ertzaintza: 53 88 20
Villabona-Aitzondo.
 Anbulatorioa: 00 69 70
Zizurkil. Aitzondo zerb.: 693930

GARRIAOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89
 ▶ Donostiako autobusa: 36 17 40
 ▶ Taxia: 67 04 20
 ▶ Taxia (Leitza): 608 873016

EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06
 ▶ Arramele-AEK: 67 12 14
 ▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur. Tolosa, Nagusia, 7, (Tolosa). 943 67 06 48.
Erbiti, Lizarraga, 7, (Leitza). 112

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.
 tolosaldean_publi@tolosaldeko-hitza.info
Tolosa. 687 41 00 82 - 687 41 00 33.
 tolosa@tolosaldeko-hitza.info
Villabona-Aitz. 687 41 00 22.
 villabona_aiztondo@tolosaldeko-hitza.info
Anoetaldea. 687 41 00 22
 anoetaldea@tolosaldeko-hitza.info
Ibarraldea. 687 41 00 32.
 ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info
Alegialdea. 687 41 00 34.
 alegialdea@tolosaldeko-hitza.info
Leitzaldeko. 687 41 01 18.
 leitzaldeko@tolosaldeko-hitza.info

iragarki laburrak ▶

LANA

Tabernaria, Neska euskalduna behar da Tolosaldeko taberna batean, lau orduz lan egiteko. 943 69 43 13 telefonora deitu, 14:00etatik 15:00etara.

GALDUTAKOAK

Tolosa. Urriaren 9an argazki kamara galdu genuen Igarondo kalean (bialean). Norbaitek argibiderik badu, deitu 650 69 24 57 telefonora.

Landutako paisaiaren ezaugarri nekosoak

NEKAZARITZA ▶ Urte osoko egun guztiak bezalaxe, udatzenekoak ere lanerako dira baserrietan, negurako azindentzat jana etxeratu —hostoa, artoa...— eta lo beroa egin dezaten, azpietarako istorra egiten ari dira. Urtero honi dagokion kolore gorritza daukaten gure mendietan, garbiuneak ageri dira tarteka, han hemenka istor-metak daudela, pagadian onddoak egoten diren moduan. Horretarako eskuarekadak eman behar! J.A.



Harpidedunei banatua ▶ 2004ko urriaren 20a, asteazkena ▶ II. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN
 DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Abaltzola, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Alzo, Ametzola, Arceña, Barañain, Belauntza, Berastegi, Eduain, Herriale, Ibarra, Iruja, Lantada, Leizorua, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Villabona, Zuzurki

Gipuzkoako
 Foru
 Aldundia

Eusko
 Jaurkitza.
 Kultura Saila

GAURKO EGURALDIA

goizez arratsaldez beroena **21** hotzera **16**

BIHARKO EGURALDIA goizez arratsaldez

HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA
 (zalantzak, harpide egiteko...)

943 30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Alegia. Kirol Kultur Etxeaz bilera. Bihar 19:30ean udaletxean.
Belauntza. Igandeko Jubilatut egunean parte hartu nahi dutenek, udaletxera (943 674366) edo Uli Mankomunitateko (943 682228) telefonoetara deitu. Gaur da azken eguna.
Berrobi. Frontenis txapelketarako izen-ematea udaletxean zabalik da.
Tolosa. Inauterietako karroza eta konpartsen lokal faltaren arazoaz hitz egiteko bilera Kultur Etxean 20:00etan.
Tolosa. Udalaren egoera orain dela urte eta erdi bezala jarraitzen duela kezkatu, herritar talde batek sinadura bilketa egingo du udal demokratiko baten alde. Kultur Etxean 20:00etan.
Tolosa. AHT Gelditu Elkarlanak gaztetxe eta gazte asanbladei bilerara deitzen die. 19:30ean Kultur Etxean.
Tolosa. Igande honetan Ganuza-Kontrasta (Araba) ibilaldia. Izen-ematea Alpino Uzturren (943 652589).
Tolosa. 36. Abesbatza Lehiaketarako sarrerak salgai CITen 17:00etatik 20:00etara.
Tolosa. Kurtso hasierako gurasoen bilera: Baxilergoko 4. mailako ikasleen gurasoek Eskolapioetan bihar 18:30ean.
Tolosa. Larunbatean Bilbon 17:00etan La Naval eta Babcocken alde *Euskal Herriak burujabetza ekonomikoa* manifestaziora joateko autobus antolatuta ditu LABek. Izena egoitzan edo 943 67 00 26 telefonon eman daiteke.
Tolosaldea. Azaroaren 7an Telleria abizena dutenen urteko bilera Liernin. Izen-ematea 675 71 03 44an.
Villabona. Areto futbol torneorako izen-ematea zabalik da Olaederra kiroldegian azaroaren 11 arte.

HITZALDIAK

Berastegi. Haurraren osasunari buruz. Bihar Gaztainondon 17:30ean.
Berastegi. Jon Ander Jauregi: MAC ordenagailuak. 18:00etan Muñagorri eskolan.
Tolosa. Eusko Alkartasunako Carlos Garaikoetxea eta Martin Aranburu. Bonberenean, bihar 20:00etan.
Villabona. Pablo Mendia: *Ariketa fisiko orekatuaren onurak*. Biltoki jubilatuen elkarteetan. Bihar 17:00etan.

IKASTAROK

Ibarra. KZprestakuntzan faxaren funtzioak. 19:00etatik 21:00etara KZgunean.
Tolosa. Inmaculada ikastetxeak osasun arloan lan egin nahi dutenentzat eta langabezia daudenentzat antolatuta du doan. 943 673629.
Tolosa. Santa Maria parrokiako lokaletan katekesiaren hasiera 1. mailakoentzat. 18:00etatik 19:00etara.
Tolosa. Shorinji kempo egin nahi duenak, Berazubiko kiroldegian azaldu astelehen, asteazken eta ostiraletan 19:30etan 21:00etan. Lehen hilabetea doan izango da.
Tolosa. Begirale ikastaroa, Laskorain ikastola eta Kazkabarra aisialdi taldeak antolatuta. 677 48 99 71
Zuzurkil. Loredendetako langileentzako ikastaroa Fraisoro ikastetxean. Izen-ematea azaroaren 22 arte 943 69 21 66 telefonon.

ZINE-KLUBA

Alegia. Karim Ainouzen *Madame sata* filma Gaztetxean 21:30ean.
Ibarra. *Euskal pilota: larrua harriaren kontra*. Bihar 21:45ean Gaztetxean.
Tolosa. *Bowling for Columbine*. Bihar 21:30ean Leidorren.



Maria Luisa Irastorzaren koadroak

TOLOSA ▶ Maria Luisa Irastorza pintore tolosarrak Lanbroa tabernan jarri berri ditu ikusgai bere koadroak. Musikarekin erlazionatutako gaiak erabiltzen ditu gehienbat: soinu tresnak, partiturak... Teknika aldetik berriz, olioarekin erabiltzen du asko, baina baita beste batzuk ere. Hilabete batez egongo dira bertan eta salgai daude. Hernaldeko Ostatuan ere baditu beste obrak batzuk zintzilikatuta egun hauetan. MADDI SOROA

matraka

matraka.info

sexua

kontaktuak

elkarrizketak

zinema

erreportaiak

zozketak

agenda

asteazkenero BERRIAREKIN ostegunero zure unibertsitatean Gazteon astekari berria

urriaren 20tik aurrera

musika

teknologia berriak

ZORION AGURRAK ▶

HITZA, zorion agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberrak... zoriontzeko, etorri: HITZAren egoitzetara: Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA Udaletxeko bulegoa - LEITZA

Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri. Mila esker!